

Errona:

Nola lor daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneetan argitaratutako informazioa herritar guztientzat argia, ulerterraza eta beren beharretara egokitua dela hautematea?

Azpi-erronkak:

- **Nola sinplifika liteke hizkera tekniko eta administratiboa**, informazioa edonork zailtasunik gabe ulertu ahal izateko?
- **Nola pertsonaliza liteke informazioaren aurkezpena**, kolektibo zaurgarrien eta gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen beharrei modu egokian erantzuteko?
- **Nola berma daiteke irisgarritasun kognitiboa, bisuala eta linguistikoa edukietan**, oro har?

Testuingurua:

Bizkaia.eus Bizkaiko Foru Aldundiaren informaziora iristeko kanal digital nagusia da. Horrez gain, BFA/DFB-ren beste webgune batzuk ere badaude, zerbitzu edo gai espezifikoetarako. Gaur egungo plataforma ezberdinetako edukietan, ordea, **ulermena eta irisgarritasuna zailtzen duten hainbat erronka** atzeman dira: edukia, sailen arabera, irizpide ezberdinak kontuan hartuta argitaratzen da (nahiz eta estilo bateratu baten alde lanean ari den), hizkera, askotan oso teknikoa da, eta formatuak ez daude beti ulermena errazteko moduan landuta. Horrek guztiak zaildu egiten du herritarrek informazioa modu autonomoan ulertzea.

Badira hizkera argia sustatzeko barne-prestakuntzak eta horren aplikazioa zaintzen duen sail bat ere. Sail horrek idazkera-jarraibideak ematen ditu, informazioa edonork uler dezan errazteko helburuz, baina ez dago argitaratzen den edo jada argitaratua dagoen edukiaren berrikuspenaren ardurapean.

Egindako elkarrizketek agerian utzi dute **oztopo nagusia hizkera argi eta irisgarriaren falta** dagoela. Edukiaren zati handi bat PDF formatuan argitaratzen da, teknizismoz eta egitura konplexuz beteta. Gainera, esperientzia digitala ez dago erabat optimizatuta mugikorretarako, herritarren artean gehien erabiltzen den kanala izan arren.

Diseinu egokiago baterantz egiten ari bagara ere, edukien pilaketa handiak, zenbaitetan, egitura argi-gabeak sortzen ditu, eta erabiltzaileak informazioa aurkitzeko *scroll* luzeak egin behar ditu. Gainera, webguneak ez du pertsonalizazio-aukerarik eskaintzen adinekoentzat edo premia bereziak dituzten pertsonentzat, eta ez dago edukia argitaratu aurretik haren argitasuna eta irisgarritasuna egiaztatzen duen sistemarik.

BFA/DFB-ren webguneen unibertsoa irtenbide atseginago eta gardenago batean bihurtzeak, informazioa argia, ulerterraza eta behar anitzetara egokitua dela bermatzea esan nahi du. Horretarako, **ikuspegi integrala** behar da: hizkera sinplifikatzea, hizkera ez-sexistaren irizpideak txertatzea, eta irisgarritasun kognitibo, bisual eta linguistikorako jarraibideak aplikatzea. Alegia, **webgune inklusiboagoa** eraikitzea. Era berean, funtsezkoa da irizpide bateratuak, balioztatze-tresnak eta prozesuak ezartzea, bi hizkuntzetan koherentzia terminologikoa bermatzeko.

Erronka honen baitan, filosofia honek **jada argitaratutako edukira ere aplikatzeko aukera** bilatzen du, herritarrei webgune inklusiboagoa eskaintzeko informazioa eskuratu nahi duten momentuan.

Helburuak:

- Bizkaia.eus edo BFA/DFB-ren beste webguneetan jada argitaratutako informazioa edonork ulertzeko modukoa, argia eta sinplea dela bermatzea.
- Teknizismoak eta egitura konplexuak murriztea, hizkera argiaren jarraibideak aplikatuz eta izapideen interpretazio-akatsak saihestuz.
- Kolektibo zaurgarrientzat eta gaitasun ezberdinak dituzten pertsonentzat, Edukien aurkezpena pertsonalizatzea, autonomia digitala hobetuko duten aukerak txertatuz.
- Irisgarritasun kognitiboa, bisuala eta linguistikoa eduki guztietan aplikatzea, sarbide-berdintasuna eta esperientzia irisgarria bermatuz.
- Irizpide bateratuak, balioztatze-tresnak eta koherentzia terminologikoa ezartzea, argitaratutako informazioaren kalitatea eta koherentzia ziurtatzeko.

Baldintza tekniko orokorrak:

Ondorengo eskakizun teknikoak baloratuko dira:

- **Heldutasun teknologikoaren maila:** $TRL \geq 7$, Benetako ingurune operatibo batean balioztatuta dagoen soluzioa, eta garapen-fase aurreratuan aurkitzen da.
- **Segurtasuna eta pribatutasuna:** Soluzioak derrigorrez bete beharko du Segurtasun Eskema Nazionala (ENS) edo, bestela, maila baliokideko neurriak hartu direla behar bezala justifikatu beharko da. Era berean, datu pertsonalen babesa bermatu beharko da, bai eta eragiketen trazabilitatea eta informazioaren kontrola eta osotasuna ziurtatuko duten auditoretza-mekanismoen erabilgarritasuna ere.
- **Integrazioa eta Elkareragingarritasuna:** Beharrezkoa denean, soluzioak dauden sistemekin integratzeko aukera eman beharko du, estandarretan oinarritutako APIak edo web-zerbitzuak eskainiz eta kontsumituz. Halaber, sistemen eta datuen arteko elkareragingarritasuna bermatu beharko da, informazioaren truke eraginkor, fidagarria eta koherentea ahalbidetuz.
- **Eskalagarria izatea:** Arkitektura eskalagarria izan beharko da, zerbitzuaren beharren arabera ahalmenaren, errendimenduaren eta baliabideen hedapena modu malgu eta progresiboan ahalbidetzeko gai dena, beti sistemaren eskuragarritasuna edo errendimendua kaltetu gabe.
- **Irisgarritasuna:** Sektore publikoari aplikagarriak zaizkion irisgarritasun-araudiak bete beharko dira, funtzionalitate guztiak irisgarri izan daitezen behar bereziak dituzten erabiltzaileentzat. Era berean, gaitasun digital maila desberdinak dituzten pertsonentzat egokia izan beharko du, indarrean dauden estandar eta legezko eskakizunen arabera.
- **Sinpletasuna:** Soluzio arina, erabiltzeko erraza eta inbaditzaile gutxikoa, barneko langileen ohiko jardunean lan-karga gehigarriarik sortuko ez duena.
- **Hizkuntza-aniztasuna:** Derrigorrezkoa gaztelaniaz eta/edo euskaraz eskuragarri egotea.
- **Diseinu moldakorra (responsive):** Soluzioa guztiz moldakorra izan beharko da, gailu eta pantaila-mota guztietara egokituz.

Baldintza tekniko espezifikoak:

Ondorengo alderdiak aztertuko dira bereziki:

- **Frontend** edo aurkezpen-geruzarako, edukiek edo orriek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Bizkaia.eus-en egungo diseinuari eta diseinu moldakorrari (responsive) jarraitzea, bere UI Kit propioan oinarrituta.
- Irakurketa erraza, hizkera sinple eta ulermena hobetzeko irizpideak betetzea.
- DFBren ekosistemako barne kudeaketa prozesuaren soluzioekin integratzeko, eskakizunak proposatutako soluzioaren arabekoak izango dira:
 - Soluzioa kode injektagarria bada (adib. JavaScript), XML edo JSON formatuko edukiak prozesatzeko gaitasuna beharrezkoa izango da.
 - Liferay bezero-hedapen baten kasuan, Liferay DXP 2025.Q1 bertsioarekin behar bezala konektatzeko gai izan beharko da.
- Web zerbitzu bat bada, REST motakoa izan beharko du, eta XML edo JSON formatuetan bidalitako datuak prozesatzeko gaitasuna eduki beharko da.


Prozesua eta data giltzarriak:

Proposamenak jasotzeko azken eguna: **2026/02/26**.

Hautaketa-prozesua honako fase hauetan egituratuko da:

- Erronkarekiko egokitasuna eta konponbidearen balioa kontuan hartuta, **gehienez 5 enpresa hautagai** aukeratzea.
- Hautatutako 5 enprekin elkarriketak egitea, haien jarduera eta balio bereizgarria sakonago ezagutzeko.
- **3 enpresa finalista** hautatzea.
- 3 finalistek pilotu-proposamena aurrez aurre aurkeztea.
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea.

Irabazten duen soluzioa ezartzeko pilotu-fasea 2026ko maiatzean hasiko da, eta 5–6 hilabeteko iraupena izango du:



Zer eskaintzen da?

1. **5-6 hilabeteko pilotu proiektu bat gauzatzeko aukera**, gehienez **35.000 euroko ordainsariarekin**, [Grupo Oesía](#) korporazioarekin kontratu pribatu bat sinatuz
2. **Beaz-ek bultzatutako 8 asteko Azelerazio Programarako sarbidea**, [BAT B Accelerator Tower](#)-en, honako ildo hauetan laguntza eskainiz:
 - a. Gaitasun-sendotzea
 - b. Mentoretza espezializatua
 - c. Sare-lana (networking)
 - d. Finantza-aholkularitza estrategikoa